

Derioko Udalaren 2020ko urriaren 9ko 356-2020 Dekretuaren laburpena. Dekretu horren bidez, lehenetsunez Derioko udalerrian erroldatutako langabeak adingabeak zaintzeko kontratatzeko laguntzak emateko deialdia onartu zen.

BDNS(Identif.):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa.Onuradunak:

Laguntza honen onuradun izan ahalko dira 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen Derion erroldatutako pertsona fisiko guztiak, baldin eta laguntza hauen xede den zerbitzurako pertsona fisikoak kontratatzen badituzte enplegatzaile gisa.

Bigarrena.Helburua:

Deialdi honen xedea laguntza ekonomikoak ematea da, langabezia dauden pertsonak – Ahal dela, Derion erroldatuta daudenak eta merkatu arruntean Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda daudenak – Kontrata ditzaten. Pertsona horiek Derion erroldatuta dauden pertsona fisikoak izango dira, 2020tik 2008ra bitartean udan jaiotako haurrak zaintzeko kontratazioak egiteko.

Hirugarrena.Oinarri arautzaileak:

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko urriaren 8an argitaratutako oinarriak.

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/10/08/II-3143_cas.pdf

Laugarrena. Zenbatekoa:

Laguntza hauetara 26.000 euroko zuzkidura ekonomikoa bideratuko da. Laguntzaren azken zenbatekoa soldata-kostuen % 30 izango da, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta Gizarte Segurantzako gastuak barne, eta % 5 handituko da kontratatutako pertsona 16-35 urte bitarteko gaztearena bada, % 5 gehiago euskararen ezagutza egiaztatzen badu eta % 10 gehiago Derion erroldatuta badago. Gehienez 600 euro emango dira. Nork Eskaera-kopuruak aurrekontu-kreditu erabilgarria gainditzen badu, erregistroan sartu den zenbakiaren arabera emango dira laguntzak, aurrekontu-kreditua agortu arte

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko urriaren 13tik azaroaren 13ra bitartekoa izango da.

Derio, 2020ko urriaren 9a

Alkatea, Esther Apraiz